

www.hogaita.com
W u !



Lapurretak ugaritu
egin dira azken boladan

Kiroldegian aritu
nahi eta ezin



r tz z n
l r t k
l n rr zt n...

Ik rt sun k rt n r n m k n r r

M l z r k
s r z r k
H s k m z k k
H r r l u k
t r i u r k
S l r k
s r r k...

Ik rt sun
N k z l k r t k r t
U r t l n s t r l 1 2
T h . / F x . 3 3 1 1 1
2 1 7 U S U l l e G u z k
I k r t s u n o s u r l e m

zendoia taberna

Menu bereziak
Razioak
Ogitartekoak
Plater konbinatuak

eguneroko menuak 8euro
asteburuko menuak 11 euro

Kale Nagusia, 35 Telf.: 943 37 40 21

**ANIMA ZAITEZ OGITARTEKO
BERRIAK DASTATZERA**
(bertan eginiko ogia)

50 IBILBIDE FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN

**Jentilak, Elurzuloak,
Kontrabandisten bideak,
Pozalagua, Baltzola,
Aixerrotak...**


**Tokian tokiko ohitura, kultura,
istorio eta altxorrek ezagutzeko
50 mendi buelta.**

Apirilaren **24**tik aurrera

egunero ibilbide bat **DOAN BERRIA**rekin



Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

berria

Txirrikitutik !

1937. urtean ateratako argazki honek ederki adierazten du orduan bizi zen faxismo garaia. Zubietako Almandegi baserriko balkoian hainbat agintari politiko eta militar ageri da eskua altxatuta, batek eskuorri bat irakurtzen duen bitartean. Nabarmena da baserriko leiho batetik ageri den bandera espainiarra, harrizkeoa arranonik ez izatea ezta? Almandegiren aurrean berriz jende multzo handia, hauek ere besoak luzaturik. Ez dakigu guzti hauek zubietarrak ziren ala ez, baina seguru egon bat baino gehiago ez zela oso urrutikoa. Aipatzekoak dira Almandegizar eta Almandegi baserrien fatxadetan, eta elizako aurrealdean izan diren aldaketak. Baina bada aldatu ez den zerbait. Sumatu al duzue? Egoera bera da aldatu ez dena. Orduan, besoa altxatzen ez zuena traidoretzat hartzen zuten eta ...gaur berriz, ez al da gauza bera gertatzen agintariak nahi eta behartzen dutena egiten ez dutenekin? Pentsatzen eta egiten dutena ez bada egiten ez al da berdin gertatzen? Hauteskundeei erreparatzea besterik ez dago: ilegalizazioak, kutsatuen zerrendak, ideien jazarpena, eskubideen urraketa ...

Zalao Arnaiz Iburguren



Egilea: Ezezaguna, 1937, Zubietako

Jabea: Kutxa Fototeka

N u !

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maider Alustiza, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietako, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NOAUA! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Nerea Urkiolari kiroldegiaren atarian eginiko erretratua.

Aurkibidea

ZUTABEAN, IDOIA TORREGARAI _____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. ORR.

LAPURRETAK UGALDU EGIN DIRA _____ 12. ORR.

Azken asteotan, lapurretak ugaltu egin dira Usurbilen. Baliogarri izan daitezkeen hainbat aholku jaso ditugu erreportajearen.



NEREA URKIOLAREKIN SOLASEAN _____ 14. ORR.

PRESOEN AZKEN PROTESTALDIAZ _____ 16. ORR.

APIRILAREN 24AN, IBILALDI NEURTUA _____ 17. ORR.

AGENDAKO EKITALDI AIPAGARRIENAK _____ 21. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !



IDÓIA TORREGARAI

Ospitaleko burutazioak

Murphy-ren legeek gutxitan kale egiten dutenez, pasa diren Aste Santuko oporrak ospitaleko ohe baten aldamenen pasa ditut, zentinelata gisa. Eta horrelako tokietan orduak luzzzzzzzzagoak egiten direnez (Einstein, hori bai maiz!), ba hainbat burutazio etorri zitzaizkidan bertako egoeraz erizainen errelebo eta errelebo artean. Esan dezadan aurretiaz ospitaleko guztiak primeran tratatu gintuztela, bai profesionalki zein pertsonalki; beraz, umorez hartu ideia hauek, ospitale batean 7 egun amaigabe egon beharrenden koitunturan sortutakoak baitira.

Lehen burutazioa: urgertzietako itxaron-gelak moldatu beharko lituzkete. Hasteko, bi gela desberdin egon beharko lirakeke; bat urgertzia duenarentzat eta bestea beraiekin doazen famili-lagun-egun eta abarrentzat. Izan ere, itxaron gelak Marx anaien kamarotearen itxura gehiago zuen urgertzietako gela baino. Era honetan, urgertzia duenak (dela hezurren bat hautsita, dela iltzatzen duen burukomina, dela odolatan datorrena) lasai egongo lirakeke gela batean, bake bakean eta bere minean kontzentratuta, besterik gabe. Eta beste gelan gaixoaren laguntzaileak egongo lirakeke jokaldia gainontzekoekin komentatzen (ba ez dakit zer daukan, atzo gauean hasi zen...), larritasunak konparatzen, zigarrotxo bat erretzen eta azken batean, taberna giroan, amai-eginak diruditen urduritasun ordu horiek ahal bezala pasatzen.

Bigarren burutazioa: gelak banatzeko irizpideetan, sexuaz gain

beste irizpide pare bat gehituko nuke; gelakideak adin eta eritasun berdintasua izatea. Nahiz eta antolaketa zailagoa izan (bistan denez), uste dut azkarrago errekueratuko lirakekeela gelakideak; sintomen antzekotasunetik abiatuta talde-terapia egiteko aukera izango zuketelako eta lau pareten artean hainbeste denbora pasatzearen poderioz, zeinek daki, azkenean koadrilarako lagun berri bat ere lortu ahal izango lukete.

Hirugarren burutazioa: Familia eta lagunak bisitatu ordu berdinetan izatea, bestela ospitalea baino gehiago Donostiako bulebarra ematen baitute gela eta pasilloek egun guztian zehar. Solairuetako itxaron gelak (eta ez gaixoen gelak) erabili beharko lirakeke gaixo baten inguruan biltzen diren familia, ezagun eta lagun guztiak tertulian aritzeko; askotan gaixoari kasurik egiten ez diogulako (aspaldi ikusi gabeko senitartekoak topatzen dira, lagun zaharrak... eta haiekin gehiago hitz egiten dugulako) eta bestetan gaixoak antzarrak ferratzera bidaliko gintuzkeelako daukan ondoezagatik.

Laugarren burutazioa: Ospitaleko langileen uniformeek koloreen kodearen esanahia gela guztietan egon beharko luke. Izan ere, azkenean ez dakizu antibiotikoa erizain bati, medikuari edota garbitzaileari eskatzen diozun.

Azken burutazioa: burutazio gehiagorik ez izatea, burukomina jartzen ari zait eta...

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idóia Torregarai

Ika-mika !

Noiz arte horrela?

Jai giroa dago, egunerokotasunari ihes egin nahian lasaitasunaren bila kanpora doa jendea, gu ere ostiralean irten gara herritik.

Gauaren iluntasunean goaz kilometroak eginez, bidean geldidune bat egin ondoren goizeko ordubiak aldera iritsi gara Madrilera, baina beste horrenbeste gelditzen zaigunez jarraitu egiten dugu.

Nahiz eta kotxean goazen erdiok lehen ere istripua izandakoak garen, ondo iritsi nahi dugula diogu elkarri. Daramaten gose-grebak beren gorputzetan izan duen eragina ikusi nahi dugu, ze egoeretan egon diren jakin nahi dugu, nahiz eta kristal batek zatikatuko gaituen gure elkertasuna helarazi nahi diegu, sakabanaketaren harresia hautsi nahi dugu, ez dakigu nola aurkituko ditugun eta kezkatu goaz, eguna nola argitzen duen ikusten goazela iritsi gara lehenengo "geltokira" eta indar berritu ondoren prest gaude 900 kilometro egun ondoren euskal borrokalari ikusteko.

Espetxean, patrikak ustu, kontrolak pasa eta abar egin ondoren, azkenik aurrez-aurre

gaude, bera eta gure artean kristal bat dago eta telefonoz hizketatzen da bera gurekin. Gure kezka egi bihurtu dira, jipoitu egin du gose-grebak, ahotsan ere nabari zaio, alboan duen ur botilatik edaten du aldizka, besarkatu egin nahi genduke bainan kristalak galerazi egiten digu.

Konturatzerako gure hizketalditxo amaitu da, oso laburra izan da eta berari begira gaudela ezkututzen dute laguna, gu ere pentsakor goaz kanpora, gu bezalaxe ikusten ditugu bisitan izan diren gainontzeko euskaldunak.

Beste bi euskaldunekin egon nahi dugunez, berriro bideari ekiten diogu eta arratsaldeko bostetarako 1100 kilometro eginak ditugu, ez gaude etsitzeko. Berriro espetze aurrean gaude eta eguerdian izan dugun gordintasunarekin topo egiten dugu. Berriro patrikak ustu, kontrolak pasa eta abar egin ondoren elkar ikusten gara.

Oraingoan, kristalak barroteak ditu eta burua mugitu beharrean aurkitzen gara elkar ondo ikusi nahi badugu, goiz partean bezalaxe konturatzerako denbora bukatu da eta

gure aurrean ezkututzen dituzte euskaldunak.

Gu berriz kotxera goaz eta etxeruntz abiatzen gara kezkatu, lagunak egoera horretan utzi beharrek samina sortzen digu, ezintasunaren amorrua nabari da guregan. Bidean igaro ditugun orduak nekea sortzen du guregan.

Itzulerako bidean, Iruñean Aberri Egunera bildu diren euskaldunak jipoitu dituztela jakin dugu, etxera iritsi garenerako 2.300 kilometro eginak ditugu eta ondo iritsi garenez poztu egiten gara, euskal preso politikoen senideei nola aurkitu ditugun esaten diegu, lagunei ere berdin eta bakoitza bere etxera itzuli aurretik "berriro itzuliko gara" diogu.

Badakigu gurea bat besterik ez dela, beste 700 euskal preso politiko daukatela egoera berdinean eta EZ DITUGU BAKARRIK UTZIKO. Beraz, GERO ARTE esaten diegu euskal preso politikoei.

Orkatz

Apirila, liburuaren hilabetea

Apirila, Liburuaren hilabete "ofiziala" izenda dezakegu: apirilaren 2an Haur eta Gazte Liburuaren nazioarteko eguna ospatzen da (H. C. Andersen jaioteguna gogoratuz) eta apirilaren 23an, berriz, Liburuaren eta Egile-eskubideen Nazioarteko eguna izaten dugu aipagai (besteak beste, 1616. urteko egun horretan hil zelako Miguel de Cervantes). Egun seinatatu horietan, liburuak ez ezik, irakurketa kontuak eta datuak ere izaten ditugu entzungai/irakurgai, eta irakurtzearen "garrantzia" (gora)aipatzen da.

Usurbilgo Udal Liburutegian datu hauek berretsiko genituzke, hau da, Liburutegiaren erabilpen maila eta liburu, egunkari eta aldizkari, eta ikusentzunezko ezberdinen kontsulta/mailegu kopurua (irakurketa ere, suposatzen dugu) gorantz doa; emakumeek gehiago irakurtzen dute, eleberria da gehien mailegatzen dena, eta gaztelera da hizkuntza aukeratuena. Haurren kasuan, neska eta mutilen artean

ez dago hainbesteko alderik, eta Usurbilen behintzat, euskaraz askosaz ere gehiago irakurtzen dute.

Aipatu egun horietan, irakurrienen zerrendak ere aurkituko ditugu han eta hemen: T. Martinez de Lezearen "Hautsi da katea" edo C. Ruiz Zafónen "La sombra del viento"; "Harry Potter" edo "Kika" supersorgina gaztetxoentzat...Baina hauek irakurri ondoren, E. Jiménez "Sukar ustelaren urtea" edo A. Orejudoren "Reconstrucción" (bitxia) nobela historikoekin jarrai dezakegu; Sarrionandiaren harri bitxia, "Akordatzen", dastatu, edo P. Ugarteren "Casi inocentes" interesgarria hartu... Eta aurten bere jaiotzaren 100. urteurrenaren aitzakian, Lauaxeta (ber)irakurri. Gaztetxoek berriz, Joanes Urkixoren "Gerlari zuria", L. Martinez Navaroren "Max bazterrak nahasten"... aukera ditzakete. Harri bitxi moduan, P. Zubizarreta eta J. Mitxelenaren "Musuka" (guztientzako) edo J. Suarez "Ilbetea dilindan" opari ditzakegu. Guztiak ere, eskuragarri izango dituzu Usurbilgo Liburutegian.

Esanak esan, hausnarketa bat bota nahi



genuke : benetan "beharrezkoa" al da irakurtzea? Irakurtzeko zaletasuna duenak, gozatu, bizi, ikasi, bidaiatu egiten du zeregin horretan eta hori transmititzen du. Irakurtzea ezin da betebeharrak bat bihurtu, irakurtzera gonbidatu egin behar da: txikitatik haurrak liburutegira ekarri edo egun seinatuetan liburuak ere oparitu; zenbait irakurketa aholkatuz, beti ere, pixkanaka hasi eta irakurketak adina eta gustuei egokitzeko gomendioa egin; eta gustuko izanez gero, esenplua emanez, egunero izan baitaiteke Liburuaren Eguna.

Usurbilgo Udal Liburutegia

Ika-mika!

Bazterketaren kontra, baina, soilik hitzez

Ugarte baserriaren inguruan sortutako kezak beraiengana ere iritsi ote ziren galdetu zion NOAUA!k martxoaren 18ko alean Luis Mari Ormaetxeari. Eta horrela erantzun zuen: «bai, halabeharrez, azken finean NOAUA! herritar guztiengana iristen da eta guregana ere bai». Gogorazi behar ote diogu, UHLk iazko irailean egindako udal-plenoan jada jakinarazi ziola baserria katalogatua zegoela eta geroztik hamaika alditan (hitzez, alegazioak aurkeztuz, prentsan adieraziz, batzarrek deituz...) salatu dugula, eraikitzailearen egitasmoari oniritzia emanaz, arauak diotena urratzen ari zirela? EAk, ordea, baserriaren eraspina ekarriko lukeen proiektua defendatzen jarraitu du, horren lekuko, Kalezarren «Aurrera goaz» izenburuarekin buzonatu zuen eskuorria.

Lehen kontrako hitza gurea izan bazen

ere, ez gara baserria botatzeko proiektuaren aurka agertu garen bakarrak. Berez, EAJk ere planteatu izan dio, hainbat alditan, adituen iritzia eskatzeko. Beste herritar batzuk ere beren haserre edota aurkakotasuna azaldu dute, orri hauexetan bertan, esaterako.

Diputazioa tartean sartu denean, hautsak gehiago harrotu dira. Orduan, «ahots batzuk altxatu dira herrian» (berak dioten moduan) eta adituei ikerketa egitea enkargatu die. Hilabeteak eman dituzte, berak eta bere taldeak, ia 1.200 usurbildar ordezkatzeko dugunon ahotsa baztertzen, entzungogorrena egiten, bere jarreraren tematuak, usurbildar gehienon eskubide zibil eta politikoen bazterketa erreala gauzatuz, nahiz eta hitzez kontra daudela esan.

«Akatsak egiteko libre ez gaude» onartzen du, segidan erru guztiak aurreko korporazioari egozteko (ahaztu egun du, nonbait, bera

ere partaide zela). Hark prestatutako arau subsidiarioei azken onarpena ematera behartuta egon direla dio Ormaetxeak. Muturra behar da gero! Zergatik ez du ezer argitzen, Diputazioak arauak azken onarpena eman aurretik, bere ardurapean dauden teknika-riekin batera katalogoaren idazkeran egindako trikimailuz? Zergatik Ugarte eta antzeko eraikinen babesari dagokion artikuluan jasotakoa aldatu zuten edukina era nahasi eta ilunagoan jarri? Interesen arabera interpretazio «malguagoak» egiteko, akaso?

Herriko ondarearen inguruan berrazterketa orokorra egingo dutela agindu du orain. Ugarte baserriarekin izan duten jarrerarekin, zaila egiten zaigu «derrepentean» sortu zaien sentiberatasuna sinista.

Usurbilgo Herri Lan

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: Apirilak 29. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** Apirilak 22.



ALOÑA
LOIDI

Txokoalde

Basurdeak inguruan

Badirudi, ia urtero bezala, basurdeak beren bisitatxoa egin digutela. Entzun dut Sanesteban eta Txokoalde inguruan omen dabiltzala zer ikusiko eta nik ikusi ez baditut ere, gure aitak pasa den astean basurde batekin topo egin zueneko kontakatu dit: “kotxean nentorren Sanestebandik behera eta 4 bat urte inguru zituen basurdetxo bat ikusi nuen bide erdian, hain zen polita... Leihatila ireki nuenerako ihesi abiatu zen hesia zeharkatuz belardian barrena. Nik, ordea, niregana hurbiltzeko dei egin nion eta ulertu izan balit bezala hesiaren ondoraino hurbildu zitzaidan. Gosea izango zuen nonbait eta jatekorik eman ez nionez berehala egin zuen hanka”.

Ez omen da, ordea, basurdeak ikusteko aukera izan duen auzotar bakarra. Izan ere, Sanestebango baserri bateko bizilagunek diotenez, gau batean esnatu egin omen ziren behi aztoratuen marruak entzunda. Ez omen zen gutxiagorako behien beldurra, beren itxiturako hesiaren barrualdetik 7 basurde zebiltzala kontakatu omen zituzten. Kontua da, itxituraren barrura sartzen erraz asmatu zutela



basurdeek baina handik irteteko tarterik ezin omen zuten aurkitu. Gaua luzea egin omen zitzaien etxe-koei zein animaliei baina azkenean joan omen ziren basurdeak mendialderantz.

Honez geroztik, ikusten omen dira noizean behin basurdeen zein beren kumeen hanka arrastoak etxe inguruan eta badirudi ez dutela mendira bueltatu nahi. Animalia hauek politak dira oso beren kumeak inguruan dituztela ikustean, baina baserrietara inguratuz gero baserriarren oso gogoko ez diren *pikardiak* egiten dituzte.



BEGOÑA
REKONDO

Kaleberri

Zeramikazko pertsonaiak

Gaur egun Usurbilen dauden lan artistiko guztien artean bat aipatu nahi nuke: Askatasuna enparantzako zeramikaz egindako pertsonaiak. Asko dira hauek eta den denak era batera edo bestera herriko mundu ezberdinak erakusten dituzte: pertsonak (ume, andere, gizon, gazte, zahar), ingurunea (erreka, labaderoa, txoriak, arrainak, tximeletak, igelak, sugeak, loreak), lanbideak (ogidun, langile, nabaria da Jose Anton Arze dela poeta bezala azaltzen dena, edo Carlos Zabala margolari, Amaia emaztea eta Karlos semea kolaboratzaile bezala), afizioak (ehiztariak, arrantzaleak).

Iruditzen zait bihotzez eta maitasunez eginik daudela. Bakoitza bere berezitasunarekin.

Kanpotik datorrenari ikusgarria iruditzen zaio, beraien bizitasuna eta edertasunarengatik. Umeentzat, berriz, jolasa, eta hemen bizitzen garenontzat egunero gure begien bitartez

gozatu genezakeen opari bat. Alde ederra dago hormak porlan hutsez ikustea edo dauden moduan apainduta ikustea. Egur euritsu eta tristeetan ere plaza honek alai dirudi.

Hala ere, badakit lan artistiko hau ez dagoela bukatuta. Egina dagoena, lehendabiziko fasea besterik ez da. Honi bukaera ez ematea, soineko bat erdi egina uztea edo bide bat ez bukatzea bezala izango litzateke.

Carlos Zabalak, lanaren egileak, esan zidan badagoela bigarren fase bat egiteko, eta proiektua egina egon arren aurrekontu arazoengatik, oraingoz behintzat ezin dela egin, pena eman zidan eta geroztik irrikitan nago bigarren fase hori ikusteko. Itxaropena dut egongo dela lehenbailehen Udaletxetik partida bat artelan hau bukatzeko.

Etxeak beharrezkoak dira bizitzeko baina edertasuna ere bai. Azken finean, denon ondarsuna izango da.

Elurra, alajaina!

Agur bero bat herrikideoi! Aztoratuta ibili gara eta ustez negua pasata zegoelakoan, elurra alajaina! Atera ostea jertsea, atera zamarra, tapatu kolkua...

Eguraldia noraezean dabilela iruditzen zait baina eguraldia ezezik, beste asko eta asko ere halaxe ote gabiltzanaren ustea daukat. Eta esango duzue batek baino gehiagok beti usteekin nabilela baina hara hor noraezaren sintoma nabarmena.

Urtaroek diote neguan hotza egiten duela, udaberriaren epelago, udan bero eta udazkenean zoro. Bada, eguraldiak eta bidez batez ama naturak nahi duena egiten duen bezalaxe (eta eskerrak horri), beste askok eta askok ere berdinean egiten dute; orain hau egingo dugu eta gero hura eta amaitzean bestea. Baita zera ere! Bai orain, bai gero eta baita amaitzean ere beraiek

nahi dutena egiten dute eta ez esaten dutena. Noraezean egongo ez gara ba! Goizean jeikitzean batek ez daki hondartzako bikinia hartu edo bufanda, albokoari egunon esan edo "buenos días" eta elkarrizketa guztiak euskaraz egin edo erdaraz egin horrela "eta" juntagailua erabiltzea ekiditeko bada ezpada ere. Nork daki!

Eguzkitan goxo geunden momentuan elurrak eta hotzak zaplastekoa eman digu baina horri kontra egiteko aukerarik ez dugu. Aldiz, beste hainbat eta hainbat zaplasteko ere jaso ditugu eta hauei erantzuteko eta egoera aldatzeko aukera batzuk izan badute baina, nahi al dute?

Gauzak horrela, ea eguraldia bere onera etortzen den eta ez duen zakarkeriarik egin eta lore guztia izorratzen eta ondorioz egoera bera ere baretzen den, beharra egon badago eta. Aio eta ondo izan!!

Kalezar



MAIDER
MAKAZAGA

Udaberri epela zapuztuta

Udaberriaren sartuak gara eta gure inguruko mendiak edertasunez eta kolorez jantziak dira. San Jose lorez hornituta daude bide bazterrak, gerezi arbolak lore biziz beteta... Birigarroak kantari eta enarak egan, batetik bestera, ederra benetan udaberria usai goxoz beteta.

Baina, neguko aurpegia ere azaldu digu azken asteburuan eta bere zartakoa erakutsi digu berriro, tenperaturak bajatu ditu erabat eta 25 zentrimetroko elurra izan dute Urbian. Gugandik ez oso urruti, zenbait herritan ere arazoak izan dituzte errepideetan. Mendizaleak asperturik daudela esan dute, baina, adituek diote oraindik ere beste agerraldiren bat egin dezakela agian, neguko giroak.

Azken hamabostaldiari begira jarrita ere, gertakizun historikoak izan ditugu. Aita Santua Joan Pablo II joan zaigu mundu honetatik eta

Monakoko Rainiero printzea ere bai. Beraz, historikoak izango ditugu noski data hauek.

Bestalde, politikariak ere hor dabilta Euskal Herri osoan, beren kanpaina aurrera eraman nahian hauteskundeak direla eta.

Gaiak aldatuz, gure auzoari begira jarrita ikusten da errepideak osatzen ari direla baina, auzotar batzuk diote herritik gatzela dagoen lehen errebueltaren inguruan geratu den zebraidea arriskutsua dela. Oso gertu geratzen da eta goitik datorren autoarentzat era bat itsua geratzen da. Bestetik errebueltaren horren bazterreko landare erraldoiek oztapatzen dute ikuspena. Beraz, kontuan har dezatela. Bestalde, beste behin ere aipatuko dut auzoko plazan dauden haurren jolas tresnak oso utzita daudela aspaldian. Ondorioz, haurrak ez dute aukerarik bertan jolasteko. Noiz arte?

Atxegalde



MARIA JESUS
URBIETA



PAKO
AGUDO

Santuenea

Aldaketak auzoan

Kaixo, askotan hitz egin dugu auzoak izan dituen aldaketaz eta gehienetan ahoa nostalgiaz beterik. Zein ez da akordatzten Santuenean eskubaloitza partidak egoten zirenen garaiaz?

Giroa ez zen partiduetara mugatzen, aste gutxian zehar jendea biltzen zen “klubaren” inguruan.

Eskubaloiaz gain, klubari etekin handia atera zitzaion festetako txosna bezala ere. A ze parrandak, eta lan orduak ere, jasan dituzten lau pareta haiek.

Azken bolada honetan, dakizuenez, zodiakak, piraguak, eta ur ekintzetarako materiala gordezko erabili da lokala.

Orain, berritze lanak hasiak direnean, gauza guzti horiek faltan botatzen dira baino auzoak azken urteetan izan dituen berrikuntzen parte izango da gure “klubean” egiten ari diren aldaketak ere. Bertan dena berrituko da, baita insonorizatu ere. Lokala bitan zatituta geratuko da,



komunak eta ofizinak bertan izango dituelarik. Lanak bukatzen direnean ekintza asko jasotzeko prest egongo da lokala. “Yoga” eta dantza ikastaroak, adibidez, bertara pasako dira, baita bilera eta bestelakoak egiteko ere egokia izango da. Dena bukatuta ikusteko maiatzaren amaierarte itxaron beharko dugu. Beraz, auzoaren birziklapenak jarraitzen du. Ea denon artean auzoa bizirik mantentzen dugun.



SARA
LAZKANO

Urdaiaga

Maiatzeko loreak

Denak ere gogo ederra daukagu udaberriak indarra hartu eta eguraldi eguzkizuek gozatzen hasteko. Ordu aldaketak eragiten duen egunaren luzatzea batetik, eguraldi ona bestetik, maiatza gero eta gertuago, zuhaitzak indarrez beteta denak loratuta eta loratzen... Guzti hori gure auzo honetan begibistakoa da.

Jendea ere hasi da neguan ia ahaztuta egoten den gure auzora azaltzen. Batzuk oinez bueltatxo ematera, besteak bizikletaz Andatza aldera doaztela, beste batzuk aldiz gure auzoan dugun lorategira.

Orainxe da garaia loreak jartzeko etxeko balkoi, terraza, loratoki eta ahal den tokietan. Baina kontuz lagunak, astebukaera honetan izan dugun eguraldiaren azken ostikadek oraindik itxaroteko esaten digute.

Apirilaren hasieran Aian egin zen lore berezien azokan ikusteko aukera izan genuen beza-

la bertako zein kanpoko milaka landare ezberdin ditugu. Gaur egun aukera zabala dago zein lore jarri leku bakoitzean. Horretarako argi izan behar dugu kanpoan edo barruan, itzalean edo eguzkitan, babesean edo haize tokian... jarriko ditugun landareak. Baina guzti hori jakin ondoren alegriak, geranioak, hiedrak, pentsamientoak eta bakoitzetik hiru edo lau bariedade desberdin izaten dira gehien ikusten ditugunak. Aipatutakoak betikoak direla esan dezakegu, baina jendeak bestelakorik ere eramaten du: buganbila, era guztietako arbustoak, ortentsiak, larrosak...

Beraz badakizue, loreen hilabetea gerturatzen ari den honetan, hartu tarte bat eta hasi lurra, tiestoak, loreak eta behar diren traste guztiak batzen eta balkoi eta zirrikitu guztiak apaintzen. Ez didazue esango plan txarra denik eta gainera horrenbeste gaitz sortarazten digun estresaren kontrako botika ere izan daiteke.

Zisne zuria

Otsailaren azkeneko egunean ateratako argazkia duzue. Nere bizitzan, pelikuletan eta argazkietan bakarrik izan dut naturak eskaintzen digun edertasun hau bertatik ikusteko aukera, eta benetan dotorea dela.

Ez dakit nondik etorria den, baina Mapilberriko etxe aurrean dabil. Tarteka aldegiten omen du baina, berriro gure auzoko bazter honetara etortzen omen da. Beste lau edo sei ate txiki, inguratuta ibiltzen da eta ondotoxo ezagutzen omen du bertako Maritxu etxeoandrea, txistu egiten omen dio eta laster batean burua dotore asko zutitu eta begira begira jartzen omen zaio eta ogi pusketa bat bota arte ez omen da mugitzen. Nahitaez, gure bazter honetara bueltatuko ez da ba? Harek jakin zeinek on egiten dion.



Denbora luzean ikusteko aukera izatea esperodut.

Aginaga



**MARIA
ANGELES
ARRUTI**

Laranjondoez eta

Hotzak alde egin duela, pozik, udaberriak hlozez bete dizkigu zubietako zelaiak. Lorez eta, plaza ingurua, etxez. Laster lagun mordoxka gehiago biziko dira bertan. Eskola txikian ere, esate baterako, inoiz baino gehiagok eman du izena datorren urterako.

Baina ez da dena lorea gurean. Etxe bazterreko laranjondoak hostoak galdu ditu, hotzak ezin eramanda. Azkenean adar gehienak lehor. Kimatzea erabaki nuen eta piura ezin negargariagoan utzi nuen arbola (ez naiz jakitun kontu hauetan).

Inguruko laranjak eta limoiak ere infernu latza pasa dute. Usurbilgo udaletxe plazako limoiak mantaz estaliak izan dira. Etxe inguruan Joxe Jabierrek ekarritako laranjondo landarea hobeto ibili da: ontzian zuenez, gaua ukuiluan eta eguna kanpoan.

Kontua da beti ikusi ditudala zuhaitz exotiko politak baserri inguruetan: palmondoak, laranjondoak, limoiak... Laranjen kolorea arboletan

ikuskizun aparta iruditu zait beti. Eta horrela aukeratu nuen nik ere laranja.

Aurrena hotzak hil zuen orain dela bi urte. Gero, beste bat ekarri zidatenean, hobeto zainduko nuela agindu nion nire buruari. Eta horrela aritu naiz plastikozko poltsa handi batzuez estaltzen gauez, egunez bere horretan uzteko. Hala ere, plastikoa ere ez da nahikoa izan eta guztiz galdu ditu hostoak. Andreak dio erre egin dudala (baina zer arraio, ez naiz ni jakitun kontu hauetan).

Azkenean zotza besterik ez den horretatik, eta nekez ikusi badaitezke ere, milimetrokoak diren kimu berde batzuk azaltzen ari dira. Lasaitu ederra hartu dut.

Zergatik lasaitu? Garbi dago. Aurrerantzean bizilagunaren laranjondoa -dagoeneko laranjak ematen omen dituen- bakean utzi ahal izango dut, ez bainekien ze bide hartu: pozoia edo eskopeta (hauetan ere ez naiz oso jakitun).

Zubiet



**PELLO
ARANBURU**

Dirulaguntzen inguruko ordenantza berriak kezka sortu du herriko kultur eragileen artean

Usurbilgo Udalak, ordenantza berri baten bidez, dirulaguntzak arautzeko asmoa azaldu du. Neurri honek, kulturean, kirolean zein gizarte-ekintza alorrean diharduten talde eta elkarteei eragingo die. Era honetan, legeek diotenaren arabera egituratu eta arautu nahi dira Udalaren eta dirulaguntza-hartzaileen arteko harremanak. Honi lotuta, irabazi asmorik gabeko elkarte eta taldeen udal erregistroa osatu nahi du Udalak. Neurri honek, bereziki, ofizialki erregistratuta ez dauden taldeen kezka sortu du.

Usurbilgo Elkargoen Udal Erregistro honetako kide izateko, talde eta elkarte guztiak Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia eta Gizarte Seguratasunaren Saileko Elkargoen Erregistroan behar bezala inskribatuak egon beharko dute. Beste era batean esanda, dirulaguntzak jaso nahi duten talde guztiak, aurrerantzean, arauzko elkarte baten itxura hartu beharko dute: estatutuak onartu, zuzendaritza osatu, aurrekontuak egin, IFK delako agiria atera...

Ofizialki erregistratu behar

Talde batzuk, jada, elkarte izaera dute. Baina badira ekitaldiak tarteka marteka antolatzen dituztenak. Ez dute talde izaerarik eta horrelako ordenantza baten aurrean, kikildu egin daitezke. Kezka hori

ere iritsi da udal teknikari eta udal ordezkariengana. Antza denez, egitasmo hau ez da hemen sortua. Zalantza orokor baten ondorio da: dirulaguntzen banaketa gardentasun eta berdintasun gehiagorik egin beharko litzatekeela, alegia. Xede nagusi horri, duela bi urte onartu zen lege bat gehitu behar zaio: dirulaguntzak arautzeko Alderdi Popularrak egin zuen estatu-legea. Urtebeteko epea ematen zen lege horretara egokitzen joateko. Derrigorrez indarrean sartu denean, korrika eta presaka hasi dira udal guztiak. Lehenago edo beranduago, herri guztietan egin beharko da.

Ordenantza honek, noski, eragin zuzena izango du talde askorengan. Lege hori bete edo ez bete, erabaki politikoa izango da, baina teknikariek ere nabarmendu nahi izan dute legea hor dagoela.

Tramitazioak egiteko erraztasunak

Kultur taldeei bezalaxe, kirol zein ongizate mailako herri ekimenei ere eragingo die udal ordenantza honek. Dagoeneko, herriko talde ezberdinekin bi bilera egin dira gutxienez. Bat, kultur taldeekin. Bestea, kirola eta ongizate inguruko taldeekin. Espero baino kexu gutxiago entzun ziren. Baina teknikariak konsziente dira ordenantza honek herriko kultur jardunbidea seriozki ikutu dezakeela. Hori dela eta, tramitazioak egiteko erraztasunak eman nahi dira. Udaletxean bertan eskura daitezke elkarte bihurtzeko eskaera orriak.



DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO, ORDENANTZAK DIOENA BETE BEHARKO DA.

Dirulaguntzak inoiz baino beranduago banatuko dira aurtan

Okerrik ez bada, hilabete honetan emango zaio ordenantza honi hasierako onespina. 30 egunez jendaurrean egongo da alegazioak egin daitezken. Alegaziorik balego, alegazio horiek aztertu eta behin betiko onspina emango litzaioke ordenantzari. Ondoren, dirulaguntzak eskatzeko oinarriak argitaratuko lirateke. Oinarri horietan dirulaguntzak eskatzeko prozedura eta epeak zehaztuko lirateke. Gauza bat eta beste, dirulaguntzak inoiz baino gehiago berandutuko dira. Dirulaguntzen kobraketa hainbeste atzeratzen bada, talde batzuen eguneroko martxa kolokan egin daitezke.

Inkesta

1. Ze itxura hartu diozue ordenantza berri honi?
2. Elkarkea ofizialki erregistratzeko asmorik al duzue?

JEXUX ARTZE TALDEA

Joxe Ramon Furundarena



1. Hasieran gogorra egin zitzaigun. Ekitaldiak antolatu nahi dituztenentzat gauzak zaildu egiten dira. Ordenantza honek dena burokratizatzen du. Zenbaitzuk atzera egin dezakete. Ofizialtasun batean sartu behar gara eta arrotz egiten zaigu.
2. Bai, oso aurreratuta dugu dena. Xehetasun batzuk falta zaizkigu baina dokumentazio osoa laster aurkezteko moduan izango gara.

SAGARDO EGUNA

Itzalai Pikabea



1. Ez dauka atzera bueltarik. Dirulaguntza jaso nahi duenak erregistratu egin beharko du. Bestela ere, nahikoa arazo dago gazte jendea inplikatzeko. Neurri honekin jendeak atzera egin dezake.
2. Ez dugu erabaki zer egin. Ez da di-da erabitzekoa. Gainera, informazioa falta zaigu. Elkarkea osatzeko formula ezberdinak daude. Eta ikusi behar elkarkea osatzen dutenengan nola eragiten duen.

BOTA PUNTTUBA

Iñaki Agirresarobe



1. Talde txikia izanik, ekitaldi xume eta jakinak antolatzen ditugu. Hau dela eta, estatutuak egiten hasteko ez dugu halako behar handirik ikusten. Ur handietan sartzea suposatzen digu.
2. Bertso Eskolan jende gutxi gaudela ikusirik, ez dugu inongo asmorik honelako lanetan sartzeko, baina elkar biltzen jarraituko dugu.

Familia euskaldunak behar dira

Programa ez da berria. Euskara ikasi edo hobetu nahian, nahiz bertako euskara ezagutzeko asmotan dabiltzan ikasleak familia euskaldunen premian dira. Ikasle hauei familia euskaldun batean hilabete bat edo bi pasatzeko aukera eman nahi zaie (uztailean, abuztuan edo irailean) eta, aldi berean, herri euskaldunen bizimodua eta ohiturak ezagutzeko aukera eman.

Bi ardatz nagusi ditu ekimen honek: Familia euskaldunak, behar dira, bate-tik. Euskara ikasi nahi duten ikasleei alternatiba eman nahi zaie, bestetik.

Familiantzako baldintzak

- Biztanleriaren % 70etik gora euskalduna duten udalerrietako zein auzunetako batean bizi izatea.
- Egonaldia eskaintzen den hilabetean, familian gutxienez hiru kide izatea.
- Kide guztien arteko ohiko komunikazio-hizkuntza euskara izatea.
- Egonaldiak hilabeteak izango dira gutxienez, eta egonaldi bakoitzeko ikasle bat besterik ezingo da hartu.
- Ikasleak familiako bizitzan parte hartuko du, eta familiak gutxienez intimitatea eta askatasuna eskainiko dizkio.
- Ikasleari logela pribatua emango zaio.
- Ikasleak, etxeko zein baserriko lanetan parte hartzera beharturik ez badago

ere, berak hala nahi badu, parte har dezake ohiko eginkizunetan.

Ikaslearentzako baldintzak

-18 urtetik gorakoa izatea eta 8. urratsa gainditua izatea.

Prezioak

-Familiak: Hilabeteko egonaldi bakoitzeko familiak 580 euro jasoko ditu. Izena emateko azken eguna: apirilak 15. Informazio gehiago 943 47 44 47.

-Ikasleak: Egonaldi bakoitzeko 285 euro ordainduko ditu ikasleak. Izena emateko epea: maiatzaren 3tik 31ra. Informazio gehiago: 94 416 24 72.

Interneten: www.egonaldiak.net

Protestaldia udalbatza aretoan

Apirilaren 2an, eguerdiz, Usurbilgo, Hernaniko eta Lasarte-Oriako hautetsi ilegalizatu eta herritar talde batek Usurbilgo udal-etxeko udalbatza aretoa okupatu zuen. Okupazioan parte hartu zutenek aditzera eman zutenek, "euskal herritarren eskubide zibil eta politikoen urraketa eta azken urteotan Euskal Herriak jasan dituen hauteskunde antidemokratikoak salatzea izan da okupazioaren arrazoia. Hori dela-eta, herritarren boza eta erabakia behingoz errespetatu ditzatela eskatuz, eskaera ofiziala egin dugu udal-erregistroan".



PROTESTALDIAN HERNANI, LASARTE-ORIA ETA USURBILGO HAUTETSI ILEGALIZATUEK HARTU ZUTEN PARTE.

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

I n t e n n - e r n u n l k



Telf: 943 36 61 21

Alperroburu, 1

PATRI JATETXEA
plater konbinatuak
eguneroko menuak
ogitartekoak
943362725

txirriStra
KONTZEJU ZAHARRA 13
943 360 400
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

K n k l
- L n t z r
- G z n z k n r r p
l l u r n t z k
- F i x r k h r
t u r a n k
Zubiaurrenea, 3 33 17 7

Azken hilabetean lapurreta ugari eman da

Azken hilabete honetan, lapurreta kasuek gora egin dute. Gutxienez, hiru etxebizitzetan sartu dira eta hainbat kotxe ireki dituzte. Eta saltokietan ere, eman dira lapurretak. Baina guztietan *modus operandi*-a ezberdina izan da. Usurbilen bezalaxe, inguruko herrietan ere hainbat lapurreta salatu dira. Hala ere, Udaltzaingoak adierazi digunez, ez da larritzeko kontua. Badaezpada, lagungarri izan daitezkeen hainbat aholku bildu ditugu orriotan.

Boladak izaten omen dira. Lehendik ere gertatu izan da. Aurrerantzean ere, gerta daitezkeen bezalaxe. Baina hala ere, Pello Zubeldia udaltzainburuak aitortu digunez, “estadistiken arabera, delitu gutxien egiten den herrien artean dago Usurbil”.

Diru eta harribitxi bila

Martxoa hasieratik hona, gutxienik hiru etxebizitzetan sartu dira lapurrak. Dirua eta harribitxiak dira lapurren helburu.

Aspaldiko partez, autoak ere lapurren begipuntuan izan dira. Herrian, hainbat kotxe ireki dituzte.

“Hala ere, delitu gutxien egiten diren herrien artean dago Usurbil”

Dendak ez dira libratzen. Dian eta Labe Goxon eman dira lapurretak. Bereziki, diru bila sartzen omen dira eta, bi denda hauetan hain zuzen, kanbioetarako gordetakoa eramatea lortu zuten



PALANKA EGINEZ SARTZEN DIRA ETXEAN. USURBILGO ETXEBIZITZATAN BATEAN DUELA GUTXI EGINDAKO LAPURRETAREN IRUDIA DUZUE HAUXE.

lapurrek. Baina ikusgarriena, Euskadiko Kutxan eman zen lapurreta izan zen.

Motoan eta pistola eskuan

Ikusgarriena, ordea, Euskadiko Kutxan gertatu zen. Martxoaren 22an izan zen. 13:55ean, moto batean etorritako bi pertsona Euskadiko Kutxaren atarian gelditu ziren. Gidaria kanpoan zain zen bitartean, bestea pistola eskuan sartu zen aurrezki kutxara. Diru gutxi eraman omen zuten eta iritsi bezala alde egin zuten.

Kasu guztietan erreparatuz, lapurreta-moduak ezberdinak izan dira guztietan. Horregatik, ez dirudi antolatuta dagoen talde baten aurrean gaudenik.

Kasuan kasuko ikerketak martxan dira baina, oraingoan, ez da atxilotetarik izan.

Etxeak, autoak eta saltokiak, lapurren begipuntuan

Etxebizitzak

Hiru etxebizitza. Atea palanka bidez ireki eta dirua eta bitxiak izan dira lapurren helburu.

Kotxeak

Aspaldi ohikoa zen. Azken boladan, berriz hasi dira autoetan lapurtzen. Auto batzuk, ireki baino ez dituzte egin. Zenbaitzutan, musika-aparailurik eraman dute.

Saltokiak

Saltokietan eta leku publikoetan ere ostu dute.

LATAILLADE
ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA

KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK ETA MANTENIMENDUA

Aritzaxo Kalea, 6 Tel: 943 363 348
Behera Nugiakorra: 609 888 821

MAHUKA
ESTRELLA KALLA, 3-943 261 100

Hemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

Mari Karmen Urdangarin, Labe Goxokoa: “Diru-kutxa osoa eraman zuten”

Ez da Kale Nagusiko Labe Goxon sartzen diren lehen aldia. Azkena, martxoaren 17ko gauan izan zen. Goizeko 5:00ak aldera, auto batean iritsi ziren lapurrak. Baten batek autoaren matrikula hartu zuen. Baina autoa Zarautzen lapurtutakoa zen. Diru bila sartu ziren, eta itxita zegoen diru-kutxetako bat oso-osorik eraman zuten.

Labe Goxoko Mari Karmen Urdangarin dendaria, tamalez, horrela-koetara ohituta dago. Kanbioetakoa baino ez zuten eraman, 200 euro inguru. Baina Mari Karmenek aitortu digunez, “atea izorratzea, hori da gehien amorratzen gaituena”. Azken bietan, atea hautsiz sartu baitira lapurrak. Baina kristala apurtuz ere barneratu izan dira.

Labe Goxon, egunero, goizetan seitan hasten dira lanean. Lantokira iritsi eta berehala jabetu ziren lapurretaz.

Salaketa jarri zuten eta lapurrek erabilitako autoaren matrikula eskuratzeko lortu zuen Udaltzaingoak. Baina autoa ere, lapurtutakoa zen.

Udaltzaingoak dioen bezalaxe, Mari Karmen Urdangarinek ere boladak izaten direla esan digu. Dena den, azkenaldian, kasu asko eman dira: “azken bitan, ateko azpikaldeko plaka apurtu eta hortik sartu dira. Beste noizbait, kristala apurtuz”, adierazi digu Labe Goxoko saltzaileak.

Okindegiak badu alarma-sistema baina, kasualitatez, lapurreta egunean ez zuten jarri: “alarma-sistema badago, baina egun hartan haize asko zebilen eta ez genuen alarma jarri”.



PLAKA HAU HAUTSI ETA BERTATIK SARTU ZIREN LAPURRAK.

Kontuan hartu beharreko hainbat aholku

Azkenaldian lapurreta kopurua igo bada ere, herri lasaian bizi garela esan daiteke. Beraz, ez da alarma pizteko unea. Hala ere, lapurren “bisitak” ahalik eta gehien oztopatu asmoz, hainbat aholku bildu ditugu.

- Irratia piztuta utzi kalera ateratzeko, etxean norbait dagoen itxura emateko.

- Desbideratu deiak. Etxean inor ez dagoela egiaztatzeko deitzen badute, beti erantzungo du norbaitek.

- Markatu gauza baliotsuak, lapurren badizkizute ezagutu ahal izateko.

- Dirua eta bitxiak banketxeko segurtasun kutxan gorde.

- Ez erakutsi aberastasunik jendarean.

- Bakarrik bizi bazara ere, jarri izen bat baino gehiago buzoiko txartelan.

- Itxi leihoak eta giltzatuta utzi atea etxetik irteten zaren bakoitzean.

- Beheko solairu batean bizi bazara, itxi ondo leiho zein atek.

- Aldatu zerraila honako kasu hauetan: etxebizitza berri batera aldatzerakoan; aurrez alokaturik egon den etxe bat alokairuan hartzerakoan; etxea berritu baduzu eta langileren batek giltzak eskura izan baditu; giltzak galtzen dituzun guztietan.

- Jarri atean behatxulo panoramikoak, atea jotzen duen pertsona osorik ikusi ahal izateko.

- Etxeko atea blindatutakoa bada, egiaztatu markoari eusten dioten “patilak” horman ongi sartuta daudela. Blindatutakoa ez bada, gutxienez itxeko bi puntu izan behar ditu, ez du tarterik egon behar atetik lurrera eta giltzarriek altzairuzko pibotez eta metalezko angeluz indarturik egon behar dute.



KALERA IRTETEAN GILTZATUTA UTZI BETI ETXeko ZERRAILA.

- Jokatu elkartasunez. Deitu Udaltzaingoari bizilagun baten etxean gauza arrarorik sumatzen baduzu.

Kiroldegia ez dago gutxitasun fisikoa dutenentzat egokitua

Gutxitan ematen den kasu horietako bat da Nerea Urkiolari gertatutakoa. Gazte ezkondu zen eta 22 urterekin lehen umea izan zuen. Haurrak hiru urte zituela, birus batek jota, mugikortasun osoa galdu zuen Nereak. Diagnostiko zuzenarekin eman arte, denbora asko pasa zen. Azkenean, *Guillen-barre* delako sindromea pairatzen zuela jakinarazi zioten. Ordutik hona, ahalegin handiak egin eta gero, mugikortasun ugari berreskuratzea lortu du. Baina gurgildun aulkian ibiltzera behartuta dago. Sendagileek gimnasioan eta igerilekuan ibiltzea aholkatu diote. Baina Oiardo Kiroldegia ez dago gutxitu fisikoentzat egokitua.

Gehienok, aldapan gora eta behera ibiltzen gara. Oharkabean. Baina Nerearentzat, aldapa txikiak ere, ahalegin berezia eskatzen du. Eguneroko bizitzan, laguntzaren beharra du. Begoña Caminok, Nerearen amak esan digun bezala, "hori ezin da soluzionatu, aldapak ezin dira kendu". Baina beste oztopo batzuk konponbidea dute eta konpondu egin daitezke. Anbulatorioa, esate baterako, ez zegoen gurgildun aulkian dabil-tzanentzat egokitua. Baina Nerearen errekerimendu bati kasu eginez, konpondu egin zuten.

Igerilekua ez dago egokitua

Nerearekin, gure protagonistarekin, kiroldegian bertan bildu izan dugu. Medikuek kirola egitea aholkatu diote Nereari. Igerilekuan eta gimnasioan arituko balitz, muskulazioa berreskuratzea eta



IGERILEKUAN ETA GIMNASIOAN ARITUKO BALITZ, MUSKULAZIOA BERRESKURATU ETA SUFRITZEN DUEN GAIXOTASUNA ARINTZEN LAGUNDUKO LIOKE.

sufritzen duen gaixotasuna arintzen lagunduko lioke. Baina Nereak esan digunez, "aszensorea ez da gimnasioraino jeisten". Eta ez dago Nerearentzat egokitutako beste sarbiderik. Igerilekuarekin, berdin. Nereak, ordea, igerilekurako badu proposamerik: "*ranpa* batekin ondo moldatuko nintzateke. Baina gaur egungo sistemarekin (barra bidezko eskailerekin) ezin dut igerilekutik atera. Uretan sartzeko ez nuke arazorik izango, baina uretatik ateratzeko bai".

Garabi-sistema ere aukera bat izan daiteke. Baina honek inbertsio handiagoa eskatuko luke.

Kirola egiteak on egingo lioke

Eguneroko bizitzan, gero eta oztopo gutxiago daudela aitortu digu Nereak. Baina espaloiak egin edo antzeko lanetan, bera bezalakoan iritzia kontuan hartu beharko luketela aipatu digu Nereak. Alper-lanak asko egin direla esan digu.

Guillen-barre delako gaitza izan zen aulkian eseri zuena. Bi hilabetez ospitalean izan zen. Erreabilitazioan bi urte eta erdi pasa zituen. Baina gaitza hartu zutenetik hona, mugikortasuna berreskuratzen joan da. Esan dugu, kirola egiteak on egingo lioke Nereari.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Oñandegia - Gozoteria

LABE-GOXO

TXIRIBOGA
TABERNA

ntx k, k t k
t l tr k n n t u k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA

943 365 095
609 068 111

6012 ARGI ETXEA 37 KALEZAR

Txikizioa Bizkarreko parkean



Herritar batek ekarri zuen parkean ikusitakoarekin. Irudian albistea NOAUA!ko erredakzio- ziora. Asaldata zegoen Bizkarreko den zuhaitza izan zen kaltetuena, baina ez bakarra.

Istripua Michelin bidean

Herritar batek bidalitako argazkia duzue haxe. Honela dio argazkiarekin batera igorritako idatziak: "larunbatean (apirilak 2), eguerdiko 12:30ean aldera jazo zen istripua. Txikierditik Lasarte-Oriako Michelinera doan eskalestrian gertatu zen, eta ez da harritzekoa bihurgune horietan zenbaitek hartzen duen abiadura ikusita... Bertan oinezkoentzako espaloia eta metro batzuk aurrerago zebra-bidea dago, eta seinalearen arabera orduko 50 km-tik gora ezin dela joan argi dago".



EHNA eskuratzeko aukera berri bat

Datorren apirilaren 30ean, larunbata, goizeko 11.00etatik 13.00era Euskal Herriko Naziotasun Aitormena (EHNA) tramitatzeko aukera berri bat izango da. UHLko ordezkariak udaletxe atarian izango dira tramitazioak erraztu asmoz.

EHNA eskuratu nahi duenak, honako hau aurkeztu beharko du: 3 argazki eta errolda agiria (adin txiki-koek famili-liburuaren fotokopia). Kostua: 15 euro.

Ia oharkabean pasa da hauteskunde kanpaina

Ofizialki, apirilaren 1ean hasi zen hauteskunde kanpaina. Komunikabideetan, ordea, lehena-go hasi ziren matraka ematen. Usurbilen, hala ere, ia oharkabean pasa da hauteskunde kanpaina.

Furgonetak megafonia astintzen eta ohiko publizitate-txartelak nonahi. Askoz gehiago ez. Mitin bakarra egin da, ordea, Batasunak apirilaren 10ean pilotalekuan eskaini zuena.



APIRILAREN 10EAN BATASUNAK EGIN ZUEN MITINAREN IRUDIA.

ARRAINDEGIA
PELLO
Tel: 943 21 13 21
JUSU IL

Larazaintza
sartak
URTINEA
urtinea@euskalnet.net
Lareak
koroak
Landareak
San Esteban
943 362 255
943 366 054 fax

M N CENILL
k r - n t u r i
t l l u k
r z t z - l u k
n t u r - l u k r l u r
Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66

Joxe Domingo Aizpurua: “Presoetaz asko hitz egiten da eta presoekin gutxi”

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak protestaldi berri bati ekin zion urte hasieran. Xede nagusia, isolamendua gainditu eta presoen status politikoa aldarrikatzea. Joxe Domingo Aizpurua egin dizkigun adierazpenen pasarte esanguratsuenak dituzue hauexek.

NOAUA! Zeintzuk izan dira protestaldi honen aldarrikapen nagusiak?

Joxe Domingo Aizpurua. Bi dira abiatu dugun borrokaldiaren ardatz nagusiak; “Isolamendu politikoa-aren aurka eta status politikoa-aren alde”. Isolamendu politikoa-aren bidez, kolektiboari eragile politiko bezala dagokion izaera ezabatu nahi zaio, Euskal Herriko prozesu politikotik baztertu. Horrela presoaren arazoa “orden publiko” afera arrunt batera murriztu.

Status politikoa aitortzarekin, kolektibo-eragile politikoa dela esan nahi dugu, ondorioz, dagozkigun eskubide politiko eta zibilak onartzu. Ezinbesteko baldintzak dira kolektiboak gatazka politikoa-aren konponketan parte hartzea bermatzeko.

N. Protestaldia aurrera eramateko zailtasunak izan al dituzue?

J. D. A. Kartzelak berez ditu zailtasunak edozein protestaldi aurrera eramateko (zuen gutuna da horren lekuko, lehen aldian atzera bota baitzidaten inolako arrazoirik gabe). Diktadura modernoetan, behatzaren keinua eta hitzaren oihartzuna “ezkutatu” bideratzen dira aginduak. Halere, borondatearekin zailtasun guztiak gaintuz, gure borroka antolatzen dugu eta jarraituko dugu kolektiboaren historian beti egin dugun bezalaxe. Borondatearen indarra ezin baita horma eta kate artean preso hartu.

N. Kanean ere egin zaio jarraipena protestaldi honi. Zer esango zenukete euskal gizarteari?

J. D. A. Kolektiboak, arduraren handiz jarraitzen du kanean ematen den borroka-aren eboluzioa. Borrokaldi honen inguruan egiten ari den lana handia da. Pozgarria da borroka dinamiken berrindartzea, ez soilik presoaren eskubideak defendatzen direlako (zinez eskertzen duguna), baizik eta, ezer baino lehen Euskal Herriko gatazka politikoa-aren konponketarako konpromiso aktiboa delako.

Presoak gatazka politikoa-aren isla gara eta presoaren eskubideen alde egiten den borroka, prozesu politikoa-aren baitan kokatu behar da. Hauxe da gizarteak begibistatik galdu behar ez duen balorea. Ez baitira faltako bestelako maniobra zitalak presoak kontestu politiko horretatik at uzteko, “presoa-suetena” bezalako ekuazio falsuak errotik moztu behar dira.

N. Nola ikusten duzue gaur egungo egoera sozio-politikoak?

J. D. A. Zuri beltzeko argazki baten gisan. Argi une handiak eman dira eta ematen ari dira. Gatazka politikoa-aren konponketarako klabeak gizarteratu dira. Nazio eraikuntzarako eta gatazka bake bidean jartzeko urrats garrantzitsuak plaza-ratu dira, “Bergarako proposamena” euskal nazioaren interlokuzio tresna izan behar lukeena, “Anoetako konpromisoa” gatazka-aren konponbiderako metodoa dena, Udalbiltza, N.E.G...

Euskal Herriko prozesu politikoa-aren baitan argipen handia ematen da. Prozesu soberanista burutzeko oinarriak eraikitzen ari dira, estrategia nazio lanaren premia egunez egun indartzen ari da, gizarte-ko sektore zabala ardurak bereganatzen ari da, honen lekuko dira H.Z., A.G... hauen inguruan bildutako indarrak. Kapital politikotik horren balioa izugarria da, are gehiago Euskal Herria jasaten ari den “Diktadura-demokratikoa-aren” menpean urrats hauek ematen direnean.

Hain justu kapital politikotik horren potentzialitatean datza etsaiaren beldurra, potentzial hori aktibatu dezaken urrats guztiak suntsitu nahian dabilta, alderdi eta plataformak ilegalizatuz, sumario beldurgarriak burutuz,... Ilegalizazioak, instituzioetatik kanpo utziarren, Euskal Herriko errealitate politikotik-sozialetik ezin-gote ezabatu ezker abertzalea. Errealitate politikoa, ez baita instituzio eta legedietan oinarritzen, gizartearen baitan baizik (...).

25 urteko ibilbide luze eta gogorraren ostean (ezin baitugu ahantzi bidean eroritako lagunak) ibilbide berri baten atarian gaude, Euskal Herriaren etapa berri baten historia markatuko duena. Erne egon beharko du euskal gizarteak beste 25 urte-arako “Acuerdo-trampa” batera ez gaitzaten eraman. Honen ondorioak larriak



**PRESOEN ALDEKO EKIMENAK
UGARIAK IZAN DIRA.**

izango lirateke, Euskal Herriaren desnazio-nalizazioa bultzatuko bailuke alor guztietan, hizkuntza, hezkuntza, ekonomia, kultura... Norabide horretara daramaten zenbait argi ari dira pizten azkenaldian, PNV-PSOEn egitasmoak, Aralarrek Nafarroarako egiten dituen proposamenak... Jarrera hauek, Euskal Herriaren partizio administratiboa ahaltzen dute eta espainiar konstituzioaren menpean ezarri Euskal Herria.

N. Tarteka, euskal presoaren egoeraz hitz egin ohi da, baina gauzak beti bezala jarraitzen dute.

J. D. A. Tarteka? Presoetaz asko hitz egiten da eta presoekin gutxi. Hobe lukete zenbait eragile eta politikariek hedabideetan gutxiago hitz egin eta gure mintzakide-enganana zuzendu. Aspalditik gaude zain hitzak noiz mamituko diren, hainbat erresoluzio instituzional noiz burutuko diren. Guk, egiten den horretan sinisten dugu ez esaten denaz. Guk, egiten dena aztertzen dugu, ez esaten dena.

Mingarria da oso dispersioa, are gehiago senide eta lagunei zigor gehitua eransten zaienean. Oraindik mingarriagoa ordea, iraina elikatzen denean zenbait politikari eta alderdien ahotan. Presoaren eskubideen alde azaltzen badira ere, hauen alde hartutako hainbat erabaki ezabatu dituztenean, udaletxe askotan gertatu den bezala. Usurbilgoa dugu horren lekuko. Zer sine-tsi dezakegu horrelako agintarrietaz? Badugu arrazoirik irainduak sentitzeko. Badugu arrazoirik hauen faltak salatzeko. Guretzako, hitzen garaia aspaldian pasa zen. Ez dago ezer esateko, gutzia dago egiteko.

Apirilaren 24an egingo da Andatzak antolatzen duen mendi ibilaldi neurtua

Mugarrien ibilaldia zena, ibilaldi neurtuan bilakatu da azken urteotan. Andatza KKE-k jada zehaztu du aurtengo ibilbidea. Donostiako Ondarretan hasi, bide zaharretik Orioruntz abiatu eta Santiotik barrena Andatzarako bidea hartu beharko da. Bazkaltzeko etxera itzultzeko moduan. Sei ordukoa izango da ibilaldia eta goizeko 7:00etan hasiko da. Ondarretara joateko autobusa jarriko du Andatzak.

Mendizaleek ondo gogoan dute ibilaldi neurtuaren hitzordua. Urtero legez, apirileko azken igandean suertatu ohi dena. Andatzako KKE-ko kide den Joxe Mari Ikutzak aitortu digunez, "autobusa bete egin ohi da", beraz, arrakasta duen ekimena, dudarik gabe.

Zozketak partehartzaileen artean

Apirilaren 24koa XXI. edizioa izango da. Ikutzak esan digunez, "Tolosako XIV orduak egiten direnean (lau urtez behin), ibilbidea luzeagoa izaten da. Baina aurtengoa sei ordu ingurukoa izango da".

Izena ematerakoan, soilik autobusekoa ordaindu beharko da. Antolatzaleek, puntu jakin batzuetan edatekoa eta jatekoa eskainiko diete partehartzaileei. Gainera, zozketak ere egingo dira ibilaldi neurtua osatzera animatzen direnen artean.

Andatza Eguna, maiatzaren 1an

Maiatzaren lehen igandean ospatu ohi da Andatza Eguna. Aurten, egun hau maiatzaren 8an egitea pentsatu bazen ere, Andatza Eguna maiatzaren lehenean egingo da. Iaz bezala, Zizurkilek ere bat egingo du jai honekin.



IBILALDIA USURBILGO UDALETIK IRTENGO DA, GOIZEKO 7:00ETAN. SENDAGILE ETA HORNIALDI ZERBITZUAK IZANGO DIRA IBILALDIAN ZEHAHAR.


XXI Ibilaldia, apirilak 24

Ondarreta/Usurbil - 6 ordukoa

- Ibilaldia Usurbilgo Udaletik irtengo da. Goizeko 7:00etan.
- Sendagile eta hornialdi zerbitzuak izango dira ibilaldian zehar, leku jakinetan.
- Andatza KKE ez da kargu egiten partaideek izan ditzaketan istripu edo kaletetetzaz.

- Eguraldi txarra edo bestelako arrazoiengatik irteera ezeztatzea antolatzaleen esku gelditzen da.
- Bukaeran, parte hartzaile guztien artean, opariak zozketatuko dira.
- Izen ematea egun berean egingo da.

Antolatzalea: Andatza KKE.



NOAUA!ko LEHIAKETA!!

SARIA:
BI KONTZERTUAK
IKUSTEKO
PARE BAT BONO



**Maiatzaren 6an,
Usurbilgo Oiarde
Kiroldegian
ARDITURRI
taldearen saioa.**

*Juan Man Beltran muskariek
Ardituri taldearekin
betara dusia bi urte plazaratu
zuen "Gogoaren bidezidorratik"
diskoa aurkeztuko du.*

**Maiatzaren 7an,
Usurbilgo Oiarde
Kiroldegian
HIRU TRUKU
taldearen saioa.**

*Rupcr Ordanikak, Joscha Tapiak
eta Rixente Martinezek
plazaratu duten azken diskotik,
Nafarroako kanituegiak
eskainiko dituzte.*

Lehiaketako galdera hau asmatzen baduzue sari
zoragarri hau irabaz dezakezue!
EZETZ ASMATU!!!

**Aurki, liburuaren eguna ospatuko da,
ba al dakizu zein egunetan izango den?**

- 1) Apirilaren 14ean
- 2) Apirilaren 23an
- 3) Maiatzaren 1ean

Erantzunak bidaltzeko azken eguna APIRILAK 22
Noaua!ko web orriaren bidez erantzuten
duten guztien artean bi sarrera hauek zozketatuko
ditugu. Sartu www.noaua.com-en!!

202. lehiaketako erantzuna:
Nola izena du munduari itzulita ematen ari
den usurbildar gazteak?
AITOR EGILETA

Irabazlea **ERROMAN MANTEROLA** izan da. Anthony
Hope-ren ZENAKO PRESOA liburua eta 11 kanluz
osaturako KUKUMA taldearen musika cd-a irabazi dituzu.
ZORIONAK! Jaso ezazu saria Noaua!ko egoitzan.



Herriko margolaria Soluzioa: 21. orrian

	* DEITURA		Koipe		Arras		Munta		Nauka
	* IZENA		Detekta- gailua		Egokiera		Lehena eta azkena		
							Marokoko hiriburua		
	Optimista								
	Bahetzeko tresna								
Aiztoak	Joaki da						Argi, hitz elkarketan		
Zuhaitz mota	Tximinia						Gazaren erdian		
					Solairu				
					Letoniako hiriburua				
Premia									
Erretegi									
			... de Janeiro				Kontso. bustia		... egina, mozkortuta
			Gauza				Pinu mota		
Naizen hau			Umorezko kolpe			50		Ezinaren erdian	
Golko txikia			Iridioa			Atzizkia		Hizki grekoa	
					Nafarroako herria				
					Bokala				
Euskal atzikia						Zoroak			

Oharrak !

Txerrimunik ordainetan !

ETXEBIZITZA

- Usurbil edo inguruetan pisua errentan hartuko genuke. Tf: 645722874.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. Tf: 679 185 102.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje-itxia alokatzen dugu. Interesatuak, 943361730 (20:00-22:00).
- Vespa Iris 200 motorra salgai. SS-AL matrikula. Salneurria 600 euro. 656721158.
- Baserriko babarrunak saltzen dira. Kiloa 10 euro. 600901150.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxeetan) 240eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943458284.
- Ford Fiesta salgai. Diesel 1.8, SS-AV. Egoera onean. 637 135 088.
- Aparkalekuak dauzkat salgai prezio oso onean Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3 zbk. 607905859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da kale nagusian. Interesatuak deitu 943361235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Lan egiteko gogoia daukat. Kanpotarra naiz eta edozein lan egingo nuke: portalak garbitu, plantxa egin, kanguro lanak astebukaeratan, pertsona helduekin, fregaderako lanak... 677552258 (Sharon)
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelheenetik ostiralera lan egiteko. 667694469.
- Emakume bat eskaintzen da astelheenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Horrelako lanetan aritua. 626641155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbituetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskilerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. Interesatuak deitu 690 784 113 telefono zenbakira.
- Oporretako, ospakizunetako, edota edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Informazio gehiago nahi izan

ezkerreko deitu 943- 555835 edota 617-242660 telefonora.

Lan-eskaintzak

- Orioko ilepaindegi batean estezizista bat behar da. Interesatuak deitu 943832729.
- Astelheenetik ostiralera, eguerditan pertsona bat behar dugu Antxeta jatetxean lan egiteko. Interesatuak deitu 943370344 telefonora.
- Usurbilen taberna bat traspasatzen da. 620 259 672.
- Ikastolen Elkarteak uztailean burutuko diren euskal, ingeles eta frantses udalekuetarako begiraleak behar ditu. Beharrezkoa: 18 urte beteta izatea, euskara menperatzea eta begirale titulua izatea. Izen emate epea: martxoak 11. Non: Ikastolen Elkarteak, 94 4354340 /www.bieikastola.net.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- DB1eko matematika eta gaztelarazko klase partikularrak emateko pertsona bat behar dut. Interesatuak utzi mezua 943365737 telefonon.
- Ume baten urrezko pultsera bat galdu dugu. Lanire izena eta data bat dauzka grabaturik. Aurkitu duenak deitu 667502218 telefonora
- Oporretarako, astebukaerarako edo despedidetarako txaletak alokatzen ditugu Peñiskolan. Itsasora zein mendira begira dauden txaletak. Gune berdeak, pizkina, teniserako pistak, sauna, squach, eta umeentzako parkea. Interesatuak: 964491022 edo 677780680.
- Errepide ondoko autobus geltokian Karpeta txuri bat galdu dut. "Aulas Kutxa" hitzak ditu azalean. Aurkitu duenak deitu 943364733 zenbakira.
- Ekonomika sukalde bat saltzen da (labea ere badu). 6 urte ditu, ondo zaindua. Prezioa negoziatuko da. 617242660 / 943361751 (Nerea).
- Bideokamara bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, batera eta tripodera barne. Gutxi erabilia berria dago. 943376902 - 665749615 gauzez.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. 943 55 18 32.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramatean da. Tf. 615755762
- Astean zehar eski-begirale izateko jendea behar du Ikastolen Elkarteak. 943444702.

Zorionak Maria!
Azkenean iritsi da eguna, bost urte egin dituzu. Zorionak Maria zure familiaren partez.



Zorionak Malen!
Apirilaren 27an gure etxeko printzesak 5 urte beteko dituenez, zorionak Jon Mikel eta etxeokoen partetik. Ondo pasa!



Zorionak Elena!
Apirilaren 13an izan zen zure urtebetetzea eta ez pentsa ahaztu dugunik. Zorionak eta muxu handi bat etxeokoen partez!



Zorionak bikote!
Apirilaren 7an Unaik egin zituen urteak, eta apirilaren 8an Julenek. Gurasoen partez zorionak!!!



HILDAKOAK

- Maria Feliciana Irasuegi Beloki, martxoaren 27an.

JAIOTZAK

- Uxue Otxotorena Illarramendi, martxoaren 10ean.
- Andoni San Martin Zhapa, martxoaren 11n.
- Garazi Mutiloa Vidal, martxoaren 13an.
- Alejandro Bereziartua Perez, martxoaren 15ean.
- Igor Sanchez Berakoetxea, martxoaren 17an.
- Helena Astiazaran Asensio, martxoaren 27an.
- Aitor Zabala Tapia, martxoaren 31n.
- Xuban Gurrutxaga, apirilaren 4an.
- Anne Navarro Gonzalez, apirilaren 6an.

Informazio iturria: Usurbilgo Bake Epategia

ITURGINTZA

**J SE
NGU EN**

Tf. 3 3 72

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 670 844

Industria eta Irabagarri
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

OSU

943 371 954
UGALDEA POL.36-2-USURBIL

K m

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

ZUMET MENU K

(Gutx n z 2 l un nez t)

- Etx k h t f - r n s t
l u r z
- Its sk nts l h z r truf z r z
- Z u x n urr z t k s sk
s lts z
- s z m t u r n t kl
r z h r s lts t n
- Etx k z k n uruk n st n
- t k f

**ZUMET
J TETXE**

x k 1 1 3 27 13

r z 27. 5 ur (rts n k)

Eusko Tren-en tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52/		10.21/	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22/		11.47/
11.51	12.05	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21/		20.48/	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07/		22.32/
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero
* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

Eusko Tren-en autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05		08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05		09.30
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40		11.05	11.25	09.30	09.35		10.00
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05		10.30
11.40		12.05	12.25	09.45**	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25**		10.30	10.35		11.00
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05		11.30
12.40		13.05	13.25	10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05		12.30
13.00	13.25	13.35	13.55 #	11.45	12.05	12.15	12.40
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05		13.30
14.00	14.20	14.30**		12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.25	14.35	14.55	13.30	13.35		13.55*
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05		14.30
15.00	15.20	15.30		13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.25	15.35	15.55	14.30	14.35		15.00
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05		15.30
16.00	16.25	16.35	16.55	14.45	15.05	15.15	15.40
16.40		17.05	17.25	15.30	15.35		15.55*
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05		16.30
17.40		18.05	18.25	15.45	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.30		16.30	16.35		17.00
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05		17.30
18.40		19.05	19.25	16.45	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05		18.30
19.00	19.25	19.35	19.55	17.45	18.05	18.15	18.40
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05		19.30
20.00	20.20	20.30		18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.30	19.35		20.00
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05		20.30
21.00	21.25	21.35	21.55	19.45	20.05	20.15	20.40
22.15	22.35	22.45	23.05	20.45	21.05		21.40
22.00	22.25	22.35	22.55	21.15	21.35		22.00
22.30	22.55	23.05	23.25	21.15	22.05	22.15	22.40
00.00		00.25	00.45	23.15	23.35		00.00
02.00		02.25	02.45	01.15	01.35		02.00
04.00		04.25	04.45	03.15	03.35		04.00
06.00		06.25	06.45	05.15	05.35		06.00

**Aiaraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara
*Aiatik dator ▣ Asteburutan
 ▣ Solilik ▣ Larunbatetan
 ▣ larunbata gaeuz ▣ lanegunetan

Donostiara autobusez joateko, geltokia San Inazio errotondako markesina berrian (martxoaren 29tik aurrera).

Eguneko goardiako farmaziak

Apirilak 14, osteguna Gil, Nagusia 24 Lasarte	Apirilak 24, igandea Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
Apirilak 15, ostirala Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte	Apirilak 25, astelehena Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
Apirilak 16, larunbata Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil De Miguel, Nagusia32 Lasarte	Apirilak 26, asteartea Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
Apirilak 17, igandea De Miguel, Nagusia32 Lasarte	Apirilak 27, asteazkena Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
Apirilak 18, astelehena Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte	Apirilak 28, osteguna De Miguel, Nagusia32 Lasarte
Apirilak 19, asteartea Orue, Jaizkibel 2 Lasarte	Apirilak 29, ostirala Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
Apirilak 20, asteazkena De Miguel, Nagusia32 Lasarte	Apirilak 30, larunbata Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
Apirilak 21, osteguna Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte	Maiatzak 1, igandea Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
Apirilak 22, ostirala Gil, Nagusia 24 Lasarte	GAUEKO GOARDIAKO FARMAZIAK Urte osoan, gaueko goardiako farmazia guztiak Hernanin egingo dira. Maria Jose Chucla, Kardaberaz Kalea 48, Hernani (943 55 17 93).
Apirilak 23, larunbata Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte	

2005eko egutegi osoa noaua.com helbidean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN Zubieta-Donostia 7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) / 14:35*(T) / 19:15(T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazatik) 7:15* / 9:00 / 12:45(T) / 13:45* / 18:45
LARUNBATETAN Zubieta-Donostia 8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazatik) 12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)
JAI EGUNETAN Zubieta-Donostia 11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) / 21:35 (T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazatik) 11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) / 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren NOAUA!

Apirila											
As.	Ar.	Az.	Os.	Ost.	La.	Ig.					
				1	2	3					
4	5	6	7	8	9	10					
11	12	13	14	15	16	17					
18	19	20	21	22	23	24					
25	26	27	28	29	30	31					

Hurrengo alca ●

Bai esan?

• Udala.....	37 19 51
• Udaltzaingoa.....	36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak.....	37 01 48
• Anbulategia.....	36 20 13
• Udarregi ikastola.....	36 12 16
• Udarregi (Agerialde).....	36 38 95
• Oiardo kiroldetgia.....	37 24 98
• Zumarte.....	37 15 94
• Etumeta.....	37 20 01
• Taxi geltokia.....	36 21 78
• D.Y.A.....	46 46 22
• Ertzantza.....	112
• Suhiltzaileak.....	112
• Larrialdia.....	112
• Anbulantziak.....	112
• Gure Pakea.....	37 32 28
• Gure Elkartea.....	37 17 51
• Arrate Egoitza.....	36 63 40
• Eusko Tren.....	47 09 76
• Noaua! aldizkaria.....	36 03 21
• Bake epaitegia.....	37 23 36
• Oa farmazia.....	37 60 76
• Iturralde farmazia.....	36 33 95
• Zubietako Batzarra.....	37 20 77
• Argindarra (Iberduero).....	47 09 76

Agenda !

Apirilak 15, ostirala

- Euskara ikasi nahi duten ikasleek familia euskaldunak behar dituzte. Hilabeteko egonaldi bakoitzeko, familiak 580 euro jasoko ditu. Informazio gehiago 943 47 44 47.

Apirilak 16, larunbata

- Bertso-afaria Zendoian, 21:30ean. Unai Iturriaga eta Igor Elortza. Txartela, 18 euro.

Apirilak 24, igandea


- XXI. Ibilaldi Neurtua. Ondarreta /Usurbil. 6 ordu inguruko ibilaldia. Autobusa Usurbilgo Udaetik irtengo da, goizeko 7:00etan.

Antolatzailea: Andatza KKE.

Apirilak 30, larunbata

- Goizeko 11.00etatik 13.00era, Euskal Herriko Naziotasun Aitormena tramitatzeko aukera. EHNA eskuratu egin nahi duenak, honakoa aurkeztu beharko du: 3 argazki eta errolda agiria (adin txikikoek famili-liburuarren fotokopia). Kostua: 15 euro.

Musikaren txokoa !



Niko Etxart, berriz ere rockaren bidetik

Euskal rockaren aitzindariak «oinarrizko rockaren» alde egin du Hapa-Haparekin batera eginiko "Minuette" disko berrian. 70eko hamarkadako lanerako filosofiari segika sortu dute diskoa: «*estudioan sartu eta luze jotzen genuen; jarraian 26 ordu ere egon izan gara. Gertatu zaigu gauza batzuk sobera edanda ginela grabatu genituela, eta bihar-munean ez genituen gustuko*». Estudioan berriro sartu eta grabatu dituzte horiek. Etxartek ez du atsegin denboraren presioa; ondorioz, Zuberoan, etxean eta bere erritmoan lan egitea «luxua» izan dela dio.



Lasaitasunean doinu eta erritmo biziez josirik diskoa egin dute, 1995ean atera zutena baino «rockeroagoa». Halaber, zenbait musikariren laguntza izan dute.

Esaterako, *Cajun jig* abestian, Joseba Tapiak soinua jo du eta abestu, eta Lazaro Torralba kubatarrak perkusioa jo du.

Amodioari «egiazki» abesten dioten kantuak ere badira diskoan. «*Lehen ez nuen hainbeste sentitzen abesten nuena, sentimenduak artifizialak ziren, baina orain egiazkoak dira*», azaldu zuen prentsaurrekoan Niko Etxart kantariak.

Soluzioa !

	⊕	Z	⊕	⊕	O	⊕	O	⊕	G	⊕	
	C	A	R	L	O	S	⊕	A	Z		
	⊕	B	A	I	K	O	R	R	A		
⊕	L	⊕	B	A	D	O	A	⊕	A	R	T
M	A	K	A	L	A	⊕	S	A	B	A	I
⊕	B	E	H	A	R	R	I	Z	A	N	A
L	A	B	E	⊕	R	I	O	⊕	T	T	⊕
⊕	N	I	⊕	G	A	G	⊕	L	⊕	Z	I
B	A	D	I	A	⊕	A	B	E	R	I	N
⊕	K	E	R	I	A	⊕	E	R	O	A	K

Carlos Zabala

Egin kontu !

Unai Iturriaga eta Igor Elortzarekin bertso-afaria Zendoian

Apirilaren 16an, bertso-afari berri bat egingo da Zendoia tabernan. Bota Punttuba taldeak antolatuta eta, honakoan, hauexek izango dira kantari arituko diren bertsolariak: Unai Iturriaga eta Igor Elortza.

Bertso-afaria 21:30ean hasiko da. Txartelak bertan izango dira salgai, 18 eurotan.



APIRILAREN 16AN EGINGO DA BERTSO-AFARIA.

N•I
Il n
MIST
S L r un, l z .
m k l t m n kur
Zu urr n , 5- 33 1 51

GORRITI
edaritegia
kafe berezial
SAN ESTEBAN KALEA, 8 943 362 770

TX
r t
PINTX E EZI K
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Ardoa urtekoa, baina haragia egunekoa eta euskaraz

Hil honen 8an, Txema Mercado, Maribel Vaquero eta Juan Mari Iradi zinegotziek "Eska ezazu haragia euskaraz" kanpaina aurkeztu zuten Urnietako Lekaio kultur etxean. Ondo ondo, Hernaniko, Urnietako eta Lasarte-Oriako udaletako euskara-batzordeetako kargudunek adierazi zuten, "herrietako dendetan euskarak gero eta presentzia handiagoa izatera bideratua dago "Eska ezazu haragia euskaraz" kanpaina".

Merkataritzako kanpainen artean hirugarrena den honetan, harategiei iritsi zaie ordua, eta, arrandegien kasuan bezala, bezeroentzako liburuxkez eta haragi-zatien euskarazko izenez hornituko dituzte haragia saltzen duten dendak.

Euskaraz kontsumitzea posible da


Udaletako kargudun horiek adierazi zuten, kanpaina guztiek oso helburu argia eta planifikatua dute: herritarrek ohartarazi nahi dituzte posible dela, han eta hemen, euskaraz eskatzea eta kontsumitzea, horretarako bitartekoak jarriak daudelako.

Beste kasuetan bezala, honetan ere dendariak (harakinek) konpromiso txiki bat hartu dute, bezeroek euskaraz kontsumitzeko aukera izan dezaten: kartelak jarriko dituzte leku agerian, abereen izenen zatiak euskaraz nola esaten diren begien aurrean izan dezaten, eta, horrez gainera, euskarazko izenez gainera, beste hainbat argibide jasotzen duten liburuxkak ere hantxe izango dituzte, erosleei banatzeko.

Dena eskura


Buruntzaldeko 67 harategik hartuko dute parte egitasmoan, tartean, usurbildarrak; beraz, bezeroak izango du nora jo. Denda horietan guztietan banatzeko, 7.500 liburuxka argitaratu dituzte udalek, eta euskarri horren faltarik ez da izango.

Kargudunek jakinarazi zuten, aurre-



MARTÍN BERASATEGI, "ESKA EZAZU HARAGIA EUSKARAZ" LIBURUXKA ESKUAN DUELA.

rantzean ere sektorekako egitasmoekin segitzeko asmoan dira: "Urtero pare bat sektore berri aukeratuko ditugu, eta bizpahiru urtez behin, aurrekoetan ere jardungo dugu berriro".



Usurbilen non eskatu euskaraz?

Harategi hauetantxe

Imanol Txapartegi
 Elutx 7
 943 361907

Euxebio Txapartegi
 Kale Nagusia 23
 943 364800

Esnaola
 Santuenea 38
 943 361050


Ramon
 Borda Berri 3
 943 362970

DIA
 Puntapax 3 behea
 943 365959

Alkorta
 Beko kalea 4
 943 365742

Eroski/ Urbil
 Asteasuain Merkataritza gunea.
 Txikiardi 7
 943 376644

Arruti
 Kale Nagusia 10
 943 370481




Eska ezazu haragia euskaraz

Txerria



Arkumea



Behia



Andoain, Astigarraga, Hernani,
Lasarte-Oria, Umieta
eta Usurbilgo udalak:
Euskarako Batzordeak.

EGIN TXOTX! SAGARDOTEGI GARAIAN

Zain duzu aurtengo sagardoa, Txotx!

SAIZAR
Sagardotegia

Kale Zahar Auzoa, 39
48911
ESURBIL
GIPUZKOA
Tel. 943 362 228

WWW.sidrassaizar.com

Txotxetik irten zera kristal fiñ garbira, saltatu dezu illun betikan argira; atoz ederra, atoz, gauzkatzu begira, eragiteko baso zaudenari jira.

Ramon Artola. "Sagardoaren grazia eta beste bertso asko"



Urtarrilaren 14 tik irekita!

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobila: 670 02 77 31



SAGARDOTEGIA

**ASTIAZARAN
SAGARDOTEGIA
IRUIN**

Betidanik hemen, denon etxetik gertu.

Urtarrilaren 7 an irekiko degu.

TEL: 943 36 17 29

LOW ASTIAZARAN